


Irakur ezazu testua eta aukera ezazu hiru erantzunen artean erantzun zuzena.

VICTOR MORENO:

“Idazketa da irakurzaletasuna bultzatzeko biderik motzena eta merkeena”

Pio Barojari buruzko liburua aurkeztu berri du Victor Morenok. Idazlea eta irakaslea, irakurzaletasuna jorratu du bere lanetako askotan. Betiere, ikuspuntu kritiko batetik. Idazketa da, bere ustez, irakurzaletasuna bultzatzeko biderik motzena eta merkeena.

Alesbesen (Nafarroa) jaio zen, duela 57 urte. Victor Moreno, hala ere, Iruñean bizi da eta Iruñe institutuko irakasle da. Hamasei eta hamazazpi urteko ikasleak ditu. Bere gogoeten berri eman digu Morenok.



1.¿Qué hacemos con Baroja? liburua atera berri duzu Pamielarekin. Beraz, zer egingen dugu Barojarekin?

Liburuari izenburua ematen dion galderaren asmoa ez da Baroja erruduntzat jotzea. Kontua da Baroja bere garaian eta espazioan kokatzea, ideologiaren ikuspuntutik, bai eta ikuspuntu narratibo batetik ere. Barojaren inguruko mitifikazioak badu benetako elementurik, Barojak erran dena baino gehiago eman baitzion nobelari. Desmitifikazioari dagokionez, hau da, maila ideologikoan, ideien esparruan, hor Baroja bere garaian jada zahar zen. Defendatzen zituen ideiak zaharkituta zeuden bere garaiko Europan. Parlamentarismora irekitako Europa zen hura, artearen abangoardietara irekia. Eta hori Barojak ez zuen inoiz ulertu. Bere oskolaren barruan giltzatu zen, eta ondorioz, ez zuen ikusi bere inguruan gertatzen zena. Azkenean, bakarrik gelditu zen.

2. Zuk gehien landu duzun generoa saiakera da. Zer du saiakerak?

Nik maite dut zaharren generoa delako, pentsatzea atsegin duen jendearena, gogoeta egitea maite dugunona, eta, batez ere, ildotik kanpo aritzea gustuko

dugunona; ildotik kanpo aritzea, zentzurik onenean. Saiakerak nobelan ezin aurki daitezkeen gogoetak ematen ditu. Saiakera gogoetaren esparrua da. Gauzak bazter uzteko edo hartzeko, ikertzeko aukera ematen dizuna. Saiakera idazten duenak, are gehiago, bere burua biluzten du idazten duenean. Eta hori interesgarria da, finean, saiakera batean zu zarena azaltzen duzulako, ez besteak direna. Horregatik saiakera eta poesia gehiago irakurtzen dut, nobela baino.

3. Irakurzaletasuna bultzatzeko hainbat lan idatzi duzu zuk, baina ikuspuntu kritiko batetik, hain zuzen ere.

Irakurtzen duena ez da bertzeak baino hobea. Irakurtzen duzunean zaren horretan sakontzen duzu. Baina irakurtzeak ez gaitu demokratikoago, etikoago edo sortzaileago bihurtzen.

4. Orduan, zergatik egin irakurzaletasunaren alde?

Ez dakit. Zergatia nik ez dakit. Zertarako irakurri, hori bai, hori badakit. Zergatik eta zertarako nahastea, hori da gaur egun teorikoen akats nagusietako bat. Zergatik irakurri? Norberak jakinen du. Zertarako? Erantzun anitz dago, dibertitzeko, denbora pasatzeko, artikulua bat idazteko, informazioa jasotzeko, hainbat gauza ezagutzeko. Irakurtzeak dituen ondorioei buruz, halaber, bakar bat ere ez da jarduera horrena propio. Elkarrizketa bat liburu bat irakurtzea bezain aberasgarria izan daiteke. Pertsonak liburuak baino garrantzitsuagoak dira. Irakurtzen duzunean, irakurri egiten duzu. Bertzerik ez.

5. Irakurlea etxean egiten dela erran izan duzu, ez eskolan.

Bai. Familiak sortzen ditu irakurleak, eta eskolak desegiten ditu. Gainera, eta hau azpimarratzea garrantzitsua iruditzen zait, eskolaren betebeharra ez da irakurleak sortzea. Eskolaren lana da irakurtzeko gaitasuna lor dezatela ikasleek. Baina ez irakurleak sortzea. Nik ikasleei irakurtzen irakatsi behar diet, nahi dutenean irakur dezaten. Irakurtzen ez dakiten haurren erantzule da eskola, ez irakurtzen jakinda irakurri nahi ez dutenena. Irakurtzea erabaki pertsonala da, norberarena.

6. Zer-nolako arrazoiak ematen dizkiezu zuk zure ikasleei irakur dezaten?

Nire arrazoa betebeharra da. Nire egoera berezia baita. Institutu batean dagoen irakaslea naiz ni, eta han dena behartuta egiten da. Hori da egia. Bertze gauza bat da behar hori mozorrotzea, jokoaren bidez bertze modu batera aurkeztea, jarduera horren izaera ludikoa nabarmentzea. Irakurtzeko arrazoirik onena da, hala ere, hizkuntza ongi ikastea eta irakastea. Hori da gakoa. Eta bertze gauza bat gaineratuko nuke: idazleak egin itzazu, eta irakurleak izanen dituzu.

7. Hizkuntza ongi ikasteko eta irakasteko irakurri, beraz?

Bai. Hizkuntzarekiko, literaturarekiko hurbilketa modu erakargarri batean egiten baduzu, modu atseginean, ikaslea gustura sentituko da espazio horretan. Baina hurbilketa horrek gatazka sortzen badu, ikasleak ez du liburuen aldeko hautua egingen. Ikasleak ikusi behar du hizkuntzaren eta literaturaren ingurukoak ikasten dituenean jasotako ezagutza horiek bidea ematen diotela bere mundua antolatzeko, zentzua emateko egiten duenari. Hori gertatzen bada, buru-belarri sartuko da mundu horretan. Gaur egun, ordea, azterketa bati erantzuteko baino ez dute irakurtzen ikasleek eskolan. Eskolan, gainera, zerrenda itxia da lantzen ditugun liburuena.

8. Idazleak sortu behar direla diozu, halaber.

Bai. Irakurtzea, jarduera intelektual gisa, idaztea baino konplexuagoa da. Irakurtzen dugunean, bertze bati jarraitu behar diogu, haren atzetik egin behar dugu. Esku artean dugun testuaren egoera komunikatiboa zein den imajinatu behar dugu, testuan ageri dena, eta ageri ez dena ulertu behar dugu, egilearen ingurukoak, testu hori idaztera eraman duten arrazoiak. Irakurlea, irakurtzen duenean, ez da autonomia. Ez du bere esku kontrola. Jende heldu askok liburu bat irakurri, eta ulertzen du irakurtzen ari dena, baina ez du barneratzen testuak duen guztia. Egileak erabiltzen duen ironia ez duelako harrapatzen, edo ezagutzen ez dituen erreferentzia historikoak eta kulturalak badirelako. Idazten duzunean, berriz, zu zara jaun eta jabe, zuk kontrolatzen duzu dena. Zuk erabakitzen duzu testuak zer-nolako egitura izanen duen, zer helburu, zer aditz erabiliko duzun. Dena. Idazten, beraz,

gazteak gustua hartzen dio idazketari, irakurketari, literaturari. Idaztea gustuko duen gazteak segurtasun osoz irakurri egingen du. Idazteko, askotan. Ez dut ulertzen zergatik jarraitzen dugun irakurzaletasuna nabarmentzen benetan bultzatu behar dena idazketa bada. Ez dut ezagutzen irakurtzen ez duen idazlerik.

Aukera ezazu hiru erantzunen artean zuzena dena.

1. Zein helbururekin idatzi du Morenok Barojari buruzko liburua?

- a) Baroja idazlea goraipatzeko eta bere ideologia kritikatzeko.
- b) Idazle eta pentsalari gisa goraipatzeko.
- c) Barojaren bakardadea azaltzeko.

2. Baroja eta bere garai historikoaz zer dio Morenok?

- a) Barojak bat egin zuela bere garaiko pentsalariekin.
- b) Baroja parlamentarismora eta artearen abangoardietara irekia zegoela.
- c) Barojaren pentsamoldea ez zegokiola bizi zuen garaiari.

3. Literatura generoen artean, zergatik da saiakera Morenoren maiteena?

- a) Nobelak bezala, idazleari biluzteko aukera ematen diolako.
- b) Tradizioaren gogoetak azaltzeko genero aproposa delako.
- c) Idazleari aukera ematen diolako bere pentsamendua landu eta adierazteko.

4. Zer dio irakurzaletasunaren garrantziaz?

- a) Zalantzan jartzen du ezinbestekoa denik.
- b) Eztabaidaezina dela.
- c) Nork bere burua ezagutzeko modu bakarra dela.

5. Irakurzaletasunaren alde egin behar da bere ustetan?

- a) Ez, irakurzaletasuna norberaren esku utzi behar da.
- b) Bai, baina irakurtzea ez da ezinbestekoa pertsona gisa garatzeko.
- c) Bai, irakurriz ikasten dena ezin delako beste era batera ikasi.

6. Pertsona ba irakurle bihurtzerakoan, zein da eskolaren funtzioa bere ustez?

- a) Eskolaren ardura bakarra ikasleei irakurtzen irakastea da.
- b) Eskolak irakurtzea maitatzen irakatsi behar die ikasleei.
- c) Familiak arduratu behar du hurrei irakurtzen irakasteaz.

7. Zertarako esaten die Morenok ikasleei irakurri behar dutela?

- a) Asko irakurtzen duenak asko idazten duelako.
- b) Ondo pasatzeko balio duelako.
- c) Nahiz eta erremediorik gabe egin behar duten, irakurtzeak hizkuntza lantzeko aukera ematen dielako.

8. Morenok dioenez, irakurtzeak hizkuntza ongi ikasteko balio du. Zergatik?

- a) Irakurtzea oso jostagarria delako.
- b) Irakurtzeak bizitza ulertzeko tresnak ematen dizkielako ikasleei.
- c) Irakurtzeak azterketak buru-belarri prestatzeko balio duelako.

9. Irakaskuntzaren esparruan, zer egin behar da ikasleek irakurketa aprobetxatzeko?

- a) Ikasleak azterketak ondo egiteko prestatu.
- b) Irakurri beharreko liburuen zerrenda itxiak ireki.
- c) Hizkuntza eta literatura bizitza ulertzeko tresna direla ikusarazi.

10. Irakurtzea idaztea baino konplexuagoa dela dio. Zergatik?

- a) Idazteko ez delako erreferentzia kultural edo historikorik behar.
- b) Irakurtzerakoan, testua kontrolatzen dugulako.
- c) Irakurtzerakoan, testua bere osotasunean ulertu ahal izateko, idazlearen eta testuaren menpe jartzeko gaitasuna izan behar dugulako.

10. Zergatik esaten du Morenok idazleak sortu behar direla?

- a) Idaztea irakurtzea baino garrantzitsuagoa delako.
- b) Idazteak irakurrarazi egiten duelako.
- c) Idaztea ez delako irakurtzea bezain aspergarria.

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

RESPOSTES:

1. a
2. c
3. c
4. a
5. b
6. a
7. c
8. b
9. c
10. c
11. b